

...eta

Kitto!

892 zkia.
2014-VI-6

Primeran!!!



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopiaren kirurgia:

- Femtosegundoko laserrarekin: 1.150 € begi bakoitzeko
- Excimer laserrarekin: 975 € begi bakoitzeko

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. - 20600 EIBAR - Tel.: 943 201 844 - www.clinicarecalde.com





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Autran Institutoa, Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza. New York-eko Unibertsitatea.

Oklusioan Graduondoa.

Anibal Alonso Doktorea.



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Euskalduntze sistemak ez du funtzionatu, eta ez du egingo. Gasteizen, 2014an, administrazio publikoetako langileek euskara ikasteko dituzten abantailak ezabatu behar direla uste dut. 30 urte igaro dira euskara ofiziala denetik eta orduan zentzua izan zezakeen politikak gaur ez dauka zentzurik: 30 urte nahiko dira hizkuntza bat ikasteko. Lehendik euskara dakigunoi, gure lanpostuetan beste ezagutza batzuk exigitzen badizkigute ere, agian ingelesa, agian beste zerbait, administrazioak ez digu ematen euskararekin ematen diren bezainbeste abantaila ezagutza berri horiek eskuratzeko"

(ASIER SARASUA, BADIHARDUGU)

"Eibartarrak zoro-zoro eginda dabixaz... Badakik astelehena eibartar mordo bat etorri zala periodikua erostera Plaentxiara Eibarren amaitu egin zirala ta? Eske, eibartarrak edozer gauza... Nere ustez inportantia dok, primeran daren bittartian behintzat, eibartarrak ondo tratatzea, batez be Plaentxian bizi diranak: Onenak zarie... datorren urtitan Europara... Igal hola enrrollauko dituk eta egingo joskuek bidegorriza Maltzaraino"

(EGOITZ UNAMUNO, SORALUZETARRA)

"Gidari ona naiz eta, 96 urterekin, sekula ez dut istripurik izan. Gauze ez dut autorik hartzen. Orain bi hilabete gaudituen azterketa eta beste 10 hilabetean lasai egon naiteke. Gidabaimena kentzen didatenean, ume batek bezala egingo dut negar"

(MIGUEL GALLASTEGI, PILOTARI-OHIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

KANGREJO.- Krustazeo ezaguna, baina errekaokoa. Itsasokoa karramarro da. "Matxarixan kangreja? Barra-barra, horixe bai!".

KANKAILLU/KANKAIXU.- Pertsona handia eta itxura baldarrekoa. "Zuen auzoko gizon kankaixuak beti egitten desta agur irribarrez". "Ez dakitt nundik etorritako kankaillua jarri zan agintzen".

eskutitzak

ATZERAPAUO EDERRA

Bost urte eta gero Eibarren zezenketa bat antolatzeara atzerapauso galanta dela irizten diogu. Pentsatzen genuen gure herrian, animalia "inteligenteek" gozatu ahal izateko, bestelako animaliak torturatu eta hiltzea gauditutako kontua zela.

Baina badirudi **Patrimonio Cultural de España** izendatu izanak gure arteko zenbait animatu dituela gaudituta behar zuen hori berreskuratzea.

Horretarako, gainera, ez dute inolako lotsarik diru publikoa erabiltzeko. Eibarko zezen-plaza nola dagoen denok dakigu eta, zezenketa bat antolatzeko, txukuntze lan ederra eskatzen du. Hori egiteko, udal langileek ordu piloa sartu beharko dute (duen kostuarekin) eta, horretaz gain, udalak 6.000 euro jarriko ditu gutxienez **Fiesta Nacional** eder hori egin ahal izateko.

Irabazten den dirua, irabazten bada, Deparkel elkarteari emango zaiola esatea ez da inola ere arrazoia horrelako gauza bat antolatzeko.

Deparkel elkarteak ikaragarriko lana egiten du Parkinson gaixotasuna duten herritarrei laguntzeko. Gure ustez, horrelako lana egiten duten elkarteek behar duten diru laguntza guztia (beti ere ondo justifikatuta) jaso behar lukete erakundeetatik, eta ez zozketa, diru eskeak, pegatinak eta horrelako gauzeekin lortu daitekeen diruaren menpe jardun. Eta, zer esanik ez, animalia batzuk torturatu eta hil egiten diren **fiesta** bate-tik atera daitekeen diruaren menpe.

Gure ustez, bada garaia horrelako jokaerak gaudituta eta buru gehiagorekin aurrera egiteko.

ANTXON ETA IGOR ALDALUR

ESKERRIK ASKO!

Beste behin ere, Eibarren euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatu zenuten guztioi. Tantan ez Tantan Eibarren euskaraz bizi ekitaldiak jendetza erakarri zuen jandaren zapatuan. Egurdiko 12.30etarako ibilbide guztia, Urkizutik hasita Untzagaraino, gantxilla esku artean hartzeko gogoz zegoen jendez beteta: horixe bai argazki ederra. Egurdia aurtan ez dugu lagun izan, eta kalean, euripean, denbora luzean zain egon zine-

ten guztioi gure eskerrik beroenak. Egurdia txarrari aurpegi ona jarri genion eta argi laga dugu, atzera ere, eibartarrok euskaraz bizitzeko dugun gogoia. Zuei denoi esker osatu dugulako berriro euskararen aldeko olatua. Urte bi barru beriz elkar ikusiko dugulakoan, jaso ezazue agur bero bat.

Gora euskara!

EIBARKO EUSKALGINTZA



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,

Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Urkiko jaixak asteburua beteko dabe berriro

Gaur hasiko dira Urkiko jaixak, 19.00etako txupinazuarekin eta jarraixan Ustekabekuak egingo daben kalejirarekin. Hortik aurrera eta domekara arte nahi beste ekitalditan parte hartzeko aukeria egongo da, jai batzordekuak programa bete-betia preparau dabe-eta. Gaur arratsaldian jokuak, nagusixerri omenaldixa eta txikiteua egingo dira eta gabeko 23.00etatik aurrera The Vartools, Lentejuelas eta AZ/DZ taldiak kontzertua emongo dabe Arrateko Andra Mari ikastetxian.

Bixar gozetik hasiko dira

jarduerak (egitarau zihetza 24. orrixan, agendan). Txanpan eta langostino jaixa 19.00etan hasiko da, baiña aurtengo kalejiran talde barrixa, Tarumba Percusioenek lagunduko detse eta gabeko berbenia Ciclon orkestakuak eskinduko dabe 23.30xetatik aurrera.

Domekan ibilbide bi eukiko dittuan Atzegikuen mendimartxakuak ekingo detse programiari, 09.30xetan. 11.00etan dultzainero eta trikitalariak diania joko dabe eta orduan hasiko da VI. Galdaramiño Mendi Lasterketia eta, iaz-



Aurreko eguenian aurkeztu eben jaixetako programaziñua: mendi lasterketia eta paella lehiaketia hor izango dira. SILBIA HERNANDEZ

ko moduan, aurtan be 130 bat lagunek hartuko dabe parte 1.000 metroko desnibela eta 14'5 kilometroko luzeeria dakan proban. Bazkaldu aurretik XVI. Paella Lehiaketia eta mezia egingo dittue eta arratsal-

dian Trapero taldiaren "Hoy fiesta" antzezlan, txokolatjana eta sari-banaketa ekitaldixa egiñ eta gero, 18.30xetatik 20.00ak arte Arno DJ-k eskinduko daben saiukin agurtuko dittue jaixak.



Untzagako jubilatuetxian abiatuko da eguna. LEIRE ITURBE

Eibarren Kaleetan Kantuz

Bixar Eibarren Kaleetan Kantuz jaixa egingo da gurian: 11.00etatik aurrera parte hartuko dabeneri Untzagako jubilaue txian harria egingo detse eta, hamarretakua egiñ eta kantu-paperak banatu eta jarraixan, 12.00xetatik 14.30xetara kalerik kale kantuan ibilliko dira. 14.30xetan Unzaga Plaza hotelian bazkalduko dabe eta arratsaldeko 18.00etan Untzagan agurtuko dabe jaixa.



Euskaraz Bizi jaixa

Bixar ospatuko dabe Juan Antonio Mogel ikastolakuak Euskaraz Bizi jaixa, egun guztian Iturburun egingo dittuen proba eta bes-telakuekin. Iturburura juateko autobus zerbitzua 08.00etan hasiko da (Ego-Gaiñetik eta Urkizutik) eta geruago igotzeko aukeria be egongo da, 11.00etan, 12.30xetan eta 13.30xetan Ego Gaiñetik urtengo daben autobusak hartuta. Buelako autobusa, barriz, 18.30xetan izango da. Olinpiada Txikixa, bestalde, hurrengo asteburuan, ekaiñaren 14an egingo da.



• tartak

• enkarguak

etxera

Bidebarrieta, 28

☎ 943 20 79 73

LIKIDAZIOA

Valenciaga



%50eko

K O N F E K Z I O A K

Zuloagatarren, 7

☎ 943 20 22 33

Gure Esku Dago-ren kataia domekan

Domekan Gure Esku Dago herri ekimenak deittuta giza-kataia egingo da Iruñea eta Durango birtartian, erabagitzeko eskubidia aldarrikatzeko. Eibartarrok 31. kilometrua dakagu, Bergara aldiari eta bertaraño juateko autobusak antolatu dittue: goizeko 09.00etatik 10.00etara, bete ahala Untzagatik (jubilauei aldetik) urtetzen juango dira eta bueltarako autobusak, barriz, 14.00xetan eta 19.00etan urtengo da. Eguardixan osatuko dan giza-kataiaren hari-ara, Bergaran egun osorako programia prepa-rau dabe, gune bitan banatuta (egitaraua eta bestelakuak gureeskudago.net/eu helbidian topauko dittuzue). Giza-kataia ahalik eta egokixen antolatzeko hainbat aholku emon dittue Gure Esku Dago / San Blas Zati Bat taldekuak: ahal dala automobilik ez erabilli (aparkatzeko gune bi besterik ez dira egongo eta Eibarkuak dakagun kilometrotik nahi-



ko urruti, gaiñera). Gure Esku Dago ekime-neko kamisetia, zapixa... jantzi eta antola-tzailliak esaten dabenari kasu egiñ. Bestalde, Info7 eta Arrosa Sareko irratixak saio be-rezixa egingo dabe 10.00etatik 14.00etara. Estudixo nagusixa Iruñean jarriko dabe eta telefonua erabillitta herritarreri berbia emongo detse. Arrasate-Bergara inguruan FM-ko 106.1/107.7 frekuentzietan entzungo da eta, bestela, internet bidez edonun ent-zuteko aukeria egongo da.

autuan

KANPOKO IGERILEKUA

Bixartik aurrera eta iraillaren 14ra arte Ipuuako kanpoko igerilekua egunero zabalduko dabe, 10.30etatik 20.00etara. Sasoi barrixari ekiñ aurretik, instalaziñuetan hainbat konponketa egin dittue. Iaz 41.010 lagunek erabilli eben zerbitzua.

SOSTOA

Sostoa abesbatzaren 30. urteurrenaren hari-ara kide eta kide izandakuen afarixa antolatu dabe hillaren 21erako Unzaga Plaza hotelian (15 euro / 30 euro lagunendako). Juan nahi dabenak hillaren 9rako emon biharko dau izena. Informaziño gehixago 649893681 telefonuan.

Zezenketarik ez

Sanjuanetan zezenketia egingo dala-eta, horren kontra alkarrataratzia egiñ eben aurreko asteko barixakuan Untzagan. Horrekin batera, hillaren 21erako Eibar-ko zezen plazia atzera be zabaltziaren kontrako kalejiria deittu dabe (16.30xetan Untzagatik, jubilauei aldetik abiatuta) eta interneten www.change.org helbidian al-kiari hori eskatzeko siñadurak batzen dihardue.



ARRATE MARKAIDE RODRIGUEZ

2014ko maiatzaren 31n hil zen,
50 urterekin

“Ez zaitugu inoiz ahaztuko”
ZURE ILOBEK



ARRATE ETXEBERRIA ARREGI

*Bihotzean dauzkagu gidatu dizkiguzun bidaiak,
baita euretan izandako bizipenak ere.
Betirako izango dugu zure oroitzapena,
zu gurekin egoteko. Ez zaitugu inoiz ahaztuko.*

BIDAIETAKO LAGUNAK





Esperientzia gastronomikua

Aurreko astian presentau eben Euskadi Gastronomika ekimena Kulturarian eta, horren harira, eskualdian hainbat esperientzia gastronomiko gozatzeko aukeria egongo da. Lehen atzo egin zan Eibarko museuan, Oskar Treviño sukaldarixarekin. Hurrengua hillaren 19xan Mendaron egingo da ("Txokolatia deskubrituz") eta hirugarrena ("Tex mex") Elgoibar-ko Belaustegi jatetxian izango da. Parte hartzeko aurretik izena emon bihar da, Debegesara deittuta (943-820110, M^a Luisa) eta 10 euro balixo dau. Debabarrenian 39 zerbitzu bereiztu dittue Euskadi Gastronomika marka barrixarekin eta, gaiñera, debabarrenaturismo.com webgunian gastronomixari eskindutako atal barrixa ipiñi dabe martxan.

Bakartxo Tejeria herriko jeltzaliek

Datorren urtiari begira, udal eta foru hauteskundietarako programia egitteko biharrian hasitta dagoz EAJ-kuak. Parte-hartze prozesua egitten dihardue, herritarren, gizarte-eragillien eta alderdikidien ideiak eta ekarpenak jasotzeko. Horren harira, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentiak hitzaldixa emon eban aurreko astian. Eva Juez EAJ-ren udal taldiaren bozeramailliarekin batera, bestiak beste Europako hauteskundietako emaitzak aztertu zittuen, egoera politikuari buruz berba egiñ eben eta alderdikak datorren legealdixan gobernu onaren gaiñian egingo dittuen ekimenak aurreratu zittuen. Bakartxo Tejeriaren berbetan, "Legebiltzarrak neurrixak hartu dittu herritarrei gerturatzeko eta politikan parte hartzeko bidiak zabaltzeko. Hori da herritarrak erakundien ganako konfidantza berreskuratzeko jarraitu biharreko bidia".



Miren Sojo, Bakartxo Tejeria eta Eva Juez agerraldixan.

Chiclanatik be Eibar taldiarekin



Untzagako jubilau etxeko talde honek egun batzuk emon dittu Chiclanan, Cadizeko kostaldia ezagutzeko biajian eta, herritik kanpora egonda be, Eibar foball taldia lehen maillara igo dala bardin-bardin ospatu nahi izan dabe, erretratuari begiratuta argi ikusi leikian moduan.

eibarko.ehbildu

www.eibar.ehbildu.net

Batzar irekia
2014 - 2020
PLANGINTZAREN
AURKEZPENA

Ekainaren 10ean, asteartea,
19:00etan Portaleko
ikastaro gelan

info@gerritek.net

www.gerritek.net

SOLUZIO INFORMATIKOAK:

- Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta
- Neurria egindako software-aren garapena

ASUS



SAMSUNG

TOSHIBA
Leading Innovation >>>

Gerritek
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6

Tel: 943-033892 / Faxes: 943-031521

Isekin-eko ipuin-solidarioak aurkezteko jaia

Orain dela urte bi sortu zen Isekin diru-irabazi asmo bariko elkarte eta egoitza nagusia Eibarren, Egigurentarreneko 16an dauka. Elkartearen helburu nagusia diru-premian dauden familiei laguntzea da eta, horiei laguntzeko dirua batzeko, hainbat jarduera eta ekimen antolatzen dituzte.

Elkartea herritarren artean ezagutzera emateko asmoz, biharko egun osorako egitaraua prestatu dute. Goizez (10.00etatik 15.00etara) eta arratsaldez (17.00etatik 21.00etara) Untzagan egongo dira eta, besteak beste dantzak, Ekialdeko borroka-arteen erakustaldiak, ipuin-kontalari saioa, patata tortilla txapelketa eta txosna eskainiko dituzte.

Elkartea bera ezagutzera emateaz gain, biharko ekitaldian "Soñadores de Esperanza" Isekin elkartearen proiektu nagusia aurkeztuko diete herritarrei. Elkarteko orde-



Eibarren, besteak beste, Irimo tabernan eros daitezke liburuak.

karien berbetan, "gaixotasun larriren bat daukaten ume talde bat osatu dugu, denak diruz gaizki dauden familietakoak eta, eurentzat dirua batzeko, ume bakoitzeko ipuin pertsonalizatu bat eman dugu argitara. Asmoa, liburuen salmentarekin batutako dirua familia horien artean banatzea da".

Jarduerak goizeko 10.00etan hasiko dira, "Soñadores de esperanza" ipuinen salmenta-postuak zabaltzearekin batera. 11.00etan, txapelketan parte hartzeko izena eman dutenen tortillak jasoko dituzte eta 12.00etan txosna zabalduko dute, pintxoak eta edariak saltzeko. Horrekin batera, Happy FM irrati-ko Borja Rodriguezek elkarteak argitaratutako ipuinak kontatuko ditu. 13.00etan tortilla lehiaketako irabazleei sariak banatuko dizkiete eta, ondoren, 13.30etatik aurrera, Nerea Lodosak zuzentzen duen Ipuuruako Dantza Txiki taldeak erakustaldia egingo du. 15.00etan atsedendaldia egingo dute eta 17.00etatik aurrera berriz Untzagan bueltan egongo dira, elkarteari buruzko informazioa zabaltzen eta ipuinak saltzen. 18.00etatik aurrera txosna zabalduko dute eta 19.00etan Montxo Kinak Wu Shu erakustaldia egingo du. Jaia 21.00ak aldera agurtuko dute.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, "gure ipuinetako ume bi gurekin batera egongo dira bihar. Horrez gain, elkarteari laguntza ematen ari den jende guztiari eskerrak eman nahi dizkiegu. Tere Muñoz Martinez, Happy Eibar FM, Borja Rodriguez, Sonia



HappyFM irratian ekimenaren berri eman dute.

Moral, Nerea Lodosa, Montxo Kina... eta beste hainbat eta hainbat. Izan ere, biharko ekitaldia antolatzen eta ezagutzera ematen laguntzeaz gain, liburuak saltzen laguntzen digutenean zerrrenda egunetik egunera luzatzen doa".

Eibarren honako toki hauetan eros daitezke liburu solidarioak, 8 eurotan: Estetika Bukuri-n (Legarre, 7), Estaziño kaleko Outlet eta Homme dendetan eta Ego Gain kaleko Irimo tabernan. Horrez gain, elkarteak interneten duen webgunearen (www.isekin.es) edo Facebook-eko orriaren bitartez eskatzeko aukera ere badago. Informazio gehiagorako elkartearen egoitzara joan daiteke (Egigurentarren, 16), 09.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 18.30etara edo, bestela, 722 33 96 46 telefono zenbakira deitu edo ifo@isekin.es helbidera idatzi.

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI

LASER DEPILAZIOA 30€

Hanka osoak + Izterondoak 90€

Masajeak

- Osteopatia
- Teknika metamorfikoak
- Masaje terapeutikoak
- Reflexologia
- Masajeak: Thai, Kaliforniarra, Balikoa



Gorputz tratamenduak

TEKNIKAK: Kabitazioa / Radiofrequentzia / MINCEUR

Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa


5 saioko BONOAK / Zona bat: 35 euro saioa



Aurpegi tratamenduak



BETILE LUZAPENAK
GEL ATZAZKALAK
IA BETIRAKO
MANIKURA



- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrequentzia (zimurrak)
- Mantxak (BERRIA)

Datorren eguaztenean, hilaren 11n, ...eta kitto!-k antolatutako mahai-ingurua izango da Portalean "El Conquistador del Fin del Mundo" ETB2ko programa arrakastatuaren inguruan. Bertako nondik-norakoak azaltzen ahaleginduko dira Julian Iantzi aurkezlea, Jose Luis Korta kapitaina, Egoitz Txurruka "Txurru" Mallabiako lehiakidea eta Joxan Goñi zuzendaria. Portalean 19.30etatik aurrera izango denaren aurrerapen gisa, Goñik egindako galderari erantzun dizkigu.

JOXEAN GOÑI (El Conquistador):

"Errespetuan oinarritu genituen harremanak guaranien tribuarekin"

- "El Conquis"-aren inguruko liburua eta jokoak ere kaleratu duzue? Zergatik orain?

Hamar urte betetzen direlako hasi ginetik eta badagoelako zer ospatu. Hamar-kada biribiltzeko zeozer berezia prestatzea bururatu zaigu aprobetxatuz Iguazun lehenengo aldiz izan garela.

- Kasting-ak hastear dituzue. Zenbat lagun aurkezten dira saio bakoitzeko? Zeren araberak aukeratzen duzue jendea?

Bina egingo ditugu Donostian eta Bilbon eta bana Gasteizen eta Iruñean. Jendeak bideo-kasting-a ere bidali dezake bere etxetik. Hori bai, azken horiekin ere, behin aukeratuta, aurrez-aurre egoten gara. Urtero 1.300-1.400 aurkezten dira eta galdera orokorrak egiten dizkiegu. Ez dugu ezer bilatzen, zehazki. Baloratzen duguna da ausartak eta estrategak izatea; baina gidatzen gaituztenak sentazioak dira, ez besterik.

- Partehartzaileak ez dira mugatzen Euskal Herrira...

Egia. Inguruko herrialdeetatik ere gerturazten zaizkigu. Baita beste nazionalitate bat dutenek ere: kubatarak... hegoamerikarrak gehienak, alemaniarak ere izan dira. Gehienak hemen bizi diren etorkinak izaten dira.

- Zer da zailena programa egiterakoan, lan gehien eskatzen dizuen?

Hangoa, bertako logistika arazoak. Bost astetik gora, 35-40 egun egin behar izaten ditugu, jarraian. Hutsunerik ez izateko, horrek ahalegin guztia eskatzen digu; lan potentea egin beharra dago katea hautsi ez dadin. Dena ajustatuta joan behar da.

- Non dago, zure ustez, programak duen arrakastaren gakoa?

Benetakoa dela: ez diola gidoi bati jarraitzen, reality-a deitzen diogun horren egitasuna du. Lehiakideak, gainera, oso onak dira, bertakoek ere hori diote. Orokorrean, kriston jarrera dute, prest egoten dira edozein probari aurre egiteko. Esandakoa, benetakoa da; ez dago muntaiarik.

- Seguru ez dagoela gidoirik? Talde bakoitzari ez diezue paper bat prestatzen?

Ahaztu halakoak! Egunerokoa eurek sortzen dute, istiluak ere euren kontuak dira. Giro ona izanda ere, eztabaidarako tarteta beti izaten da, 24 ordutan elkarrekin egonda. Baina ez dago fikziorik.

- Probak babestutako paraheetan egiten dituzue. Zelako baldintzak bete behar dituzue hori lortzeko?

Bertakoek agintzen digutenak: ordaindu beharreko tasak ordaindu eta eskakizun guztiak bete behar izaten ditugu. Bertako agintariekin hainbat bilera egin behar izaten ditugu eta ez pentsa baimen guztiak ematen dizkigutenik. Argentinan, dena dela, zuk ardura erakusten baduzu eta esandakoa betetzen baduzu hurrengoan ere eurek horrela erantzungo dizute.

- Susto bat edo beste izan duzue. Zibilizatiotik hain aparte zaudete?

"Arrakastaren gakoa muntaiarik ez izatean dago. Erakusten dena benetakoa da, lehiakideek sortutakoa"



Batzuetan bai. Kanpalekuak gertuago edo urrutiago egon daitezke, baina egia da isolatuta egoten direla. Herri bat izan dezakete bi-hiru ordura, baina eurek ez dute hori jakiten.

- Azken edizioan guaraniak izan dira berrietasun nagusia. Zelan kontaktatu zenuten eurekin?

Bitarteko batzuk aprobetxatuz egin genuen. Euren artekari lanari esker izan genuen harremana guaraniekin. Erreserba moduko asentamenduetan bizi dira. Hasieran zalantzak izan zituzten, baina ondo hartu genuen elkar. Euren hizkuntza berreskuratu nahian ere badabilta eta horrek lagundu zigun guk euskeraren egoera jakinarazten. Errespetua izan zen eskatu zigiten bakarra, programa ez bihurtzea pantomima. Primeran moldatu ginen eurekin.

- Sua egitearen inguruko tranpak amaitu dira? Edo parte-hartzaileak aurretik doaz?

Hasieran gehiago sartzen zigiten ziria! Orain zorrotzagoak gara eta badakite kamara aurrean egin behar dutela. Amaitu ziren metxeroak eta halakoak! Konturatu gara, dena dela, errazagoa dela Patagonian egitea Iguazun baino.

- Parte-hartzaileek eskertzen dizute eskaintzen diezuen dietaren mirakuluak?

Kexatzen badira ere, gehienak prest dauten esperientzia errepikatzen. Denok gara ezberdinak, baina antzera erreazionatzen dugu horrelako proba baten aurrean: hainbeste egun ondoren, erreta eta nekatuta zaude, etxeratzeko gogo. Baina, handik bi astera, %90 bueltatzeko irrikitan.

Sanjuanetarako diru-laguntzak koadrilentzako

Udaleko Kultura Batzordetik aditzera eman dutenez, koadri-lei San Juan jaietarako ematen zaizkien diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik dago. Eskararak egin ahal izateko ez dute adin mugarik ez koadrila bakoitzeko kide-kopuru mugarik ezarri, baina koadrilen izenak eta kamisetetan idatzitako mezuak euskaraz izan beharko dira nahitaez. Diru-laguntza eskararak egiteko epea ekainaren 13an, 12.00etan amaituko da eta interesa dutenek honako pausoak jarraitu beharko dituzte: kamisetak, instrumentuak edo bestelakoak erosi aurretik dendan aurrekontua eskatu beharko dute; aurrekontuan enpresaren izena, telefonoa, hel-

bidea, posta elektronikoa eta IFK, zer erosiko den eta prezioa (BEZa barne) zehaztuta agertu beharko dira. Behin aurrekontua eskuratuta, Kultura sailera helarazi beharko dute, Portaleko 1. pisura zuzenean joanda edo cultura@eibar.net helbidera idatzita. Aurrekontuarekin batera taldearen izena eta ordezkariaren izena eta kontakutua entregatu beharko dituzte.

Udalak proposamen guztiak aztertuko ditu eta, ondoren, koadrila bakoitzari zenbat egokitu zaion jakinaraziko diote. Dirua jaso ahal izateko, erositako en faturak Kultura sailean entregatu beharko dira, uztailaren 1a baino lehen. Fakturan koadrilari eman zaion zenbatekoa



Kuadrilek ekainaren 13rako aurrekontua aurkeztu beharko dute diru-laguntza jaso ahal izateko. SILBIA HERNANDEZ

(BEZa barne) agertu beharko da eta Eibarko Udalaren izenean eginda egon beharko da (IFK: P2003100A). Azaldu duteenez, jasotako dirua baino gehiago gastatuz gero, koadri-

lak ordaindu beharko du aldea. Informazio gehiagorako Kultura sailean galdetu, Portalera (1. pisura) joanda, 943708435 telefono zenbakira deituta edo cultura@eibar.net helbidera idatzita.

Txosnagunerako jai egitaraua prest

Jaixak Herrixak Herrixandakok antolatutako sanjuanetako egitaraua hilaren 20an (bari-xakuan) hasiko da: 19.00etan kalejira irten go da Untzagatik, Skandalue elektrotxarangarekin; 20.00etan txosnak zabalduko dituzte eta, antzerkia eta flashmob egin ondoren, elektrotxarangoak herrian zehar

ibiliko dira; eta 23.00etatik aurrera kontzertuak (Damudot Ofiziala, Glaukoma eta DJ B_ato eta DJ Gorku + Instrumental live) hasiko dira.

Hurrengo egunean 15.00etan preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko bazkaria egingo da txosnagunean. 19.00etan Lizarako Baturrada ailegatuko da eta arratsalde-gauean zehar gaztetxekoek mojitoak prestatuko dituzte. Kontzertuak 23.00etan hasiko dira, Berri Tzaarrak eta The Mockers taldeekin. Eta gaupasa eginda oraindik jairako gogoia duenak gaztetxera joateko aukera izango du, goizeko 09.00etatik aurrera "afterra" antolatu dute-eta.

Gazte Eguna astelehenean,

San Juan bezperan egingo dute aurren: 13.00etan dultzaineroei ongi-etorria egin eta gero trikipoteoa egingo dute. Bizimina elkartearen eskutik egingo den bazkaria 15.00etan hasiko da eta jolasak bazkalostean hasiko dira (bazkarirako txartelak Belekoko, Hirurok, Deportibo eta Buenos Aires tabernetan daude salgai). 20.00etatik aurrera elektrotxarangoak alaituko du txosnagunea eta gauean, 22.30etan sua piztuko dute. Eta 23.00etatik aurrera Bellator eta Ingo al deu? taldeek kontzertua emango dute. San Juan eguneko egitaraua arratsaldean, 18.00etan hasiko da, tortilla txapelketarekin. 20.30etan, berriz, bertso-afari-merienda egingo dute eta gauerditik aurrera nahi duenak karaokean abesteko aukera izango du. Eta jaiak agurtzeko, goizeko 08.00etan herri-argazkia egiteko asmoa daukate.



Bazkarirako tiketak salgai daude.

Iñaki Galparsoro Garcia

Beti gure bihotzean
Familiaren partez

Urteurrena
(2013-VI-5)



11 foballari, hamaika lorpen, millaka zorion.

Eibar Foball Taldiarena?

MUNDIALA BENETAN!

Bazan behin munduko eki-
porik onena, zaletuen
amets miresgarrienak
errealidade bihurtzen hasi zana.

Horrek ekiuorrek 75 urte beteko ditu
2015ian eta sortu zanetik, 1940ttik, harik eta
1947ra arte Elgoibarrera juan bihar izaten
eban bere partiduak jokatzera, gero izen
haundixa hartu daben Ipurua egiñ arte.

Tarte horretan egon zan denboraldi bat,
hasierako urtietan, konpetiziñuan parte
hartu ez zebana. Bestiak holan banatu dit-
tutu: hiru 2. Erregionalian, bost 1. Erregiona-
lian, lau Preferente maillan, 28 Hirugarren

maillan, bost Bigarren maillan, zazpi 2. B
maillan, 21 2. A maillan eta, zeruko turuta
guztiak martxan ipiñi eta gero, platinozko
ezteiak Lehelengo maillan ospatuko dittu.

Bere multzoko aurrekonturik txikixena
manejatzen zeban talde horrek bi jardu-
naldiren faltan eskuratu zeban munduko fo-
ballaririk onenak dittuan Ligan parte har-
tzeko eskubidia, Alavesi irabazi eta gero.
2014ko maietzaren 25a zan eta zelaixan

bertan hasi ziran lorpena ospatzen. Aurretik
be, 2012-12-12 ospetsu hartan, lortu eban,
San Mames zaharrian, hain beria zekan Ko-
patik Athletic haundixa. Oin urrats bakarra
dauka egitteko: 2. A maillako txapela jaztia.
Sorion domekan jokatu biharrekuak esan-
go desku lortuko daben. Baiña zaletuak ge-
ro eta duda gitxiago dauka eta badaki "III.
Errepublikia piztu zeban gaba" bizi zebela
maietzaren 31n".



Zaletuen eta foballarixen arteko komunifua bizi izan zan.





Garitano entrenatzailliak bertso edarra oparitu zeskun. LEIRE ITURBE



Denboraldiko biajerik bizixena: business, turista, primeran?

Herrixa kalian

Zapato horretako ospakizunak adiñ eta era guztietako jendia batu eban kalian, Lugori irabazi ondoren. Sanjuanak ixa hillaletia aurreratu ziran gurian. Taldia ordutik geratu barik jardun dau, zelebrazioz zelebrazio, baiña ohiko gauza inportantieri erreparatuta. Holan, Urkullu lehendakarixa Ipuruara etorri bazan azken partidura eta Udalian eta Diputaziñuan harrera egin bazetsen Goliath gaidintzia lortu daben Davidi, Eibarkuak tradiziñuari eutsita Arratera jo zeben han Amatebiriñari lore-eskintza egitteko. Ez hori bakarrik: bizikletia hartu eta goraiño igo zeban ekipo

osua martitzenian. Jon Errasti taldeko eibartarra nagusittu zan, Boveda eta Añibaroren aurretik.

Zapato gabeko zelebrazioñuan "Bartzelonak erabilli eziñ eban konfeti morduak" hartu zittuan gure kaliak. Gaizka Garitano entrenadoriak bertsolari jokatu eban oinguan eta jokalaria danak -eta euren inguruak herritik gertu sentidu zittuan zaletuak. Mediatikuenak be jator jokatu dabe halakuetan. Ez hori bakarrik, Jotaren azken golak oso erabakigarriak izan diralako. Añibarro kapitaiñak itsasontzi bikaiña gidatu dau, iñoiz egondako egoeriaren balantzeri zelan erantzun erakutsitta.

"Arru, Arru"-k Jaime Barriuso presidentia izandakua gogortzeko detaillia izan zeban. Bae-guan egun batzuk lehenago juandako Antonio Simal gogoratzen zebanik, zelan ez!

Zelebrazio guztien atzetik zein-eta... Servando babeslia, halako batian 1. mailara igotzekotan talde osuari Ibizarako biajia ordainduko zetsela esan zeban haura. Fiñ eta 1. mailan



Zaletuak adi-adi, foballarixak noiz agertuko zain. LEIRE ITURBE



Funeraria Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

MIKAITZ belardenda zena berriro zuekin IRATXE belardendan ONGI ETORRI DENORI!!!



SAN AGUSTIN, 5
943 530 361
Belardenda



bide beretik jarduteko prest. Eibar FT-ak moduan: oindiokan bada-goz jaso biharreko sari-xak, Irureta atezaiñak bereganatu daben Zamora sarixa esaterako, maillako gol gitxien jaso dabena dalako. Taldia be partidu gitxien galdu dabena izan bada, zeo-zergaittik izango zan.

Goazen aurre egittera!

Oin, jakinda iñoiz Lehen Maillan jardun daberen herririk txikixena garala, beste erronka barri bati egin bihar detsagu aurre. Alex Aranzabal presidentiak eta zuzendaritzakuekin osatutako taldiak ez dake lan makala hamendik aurrerakua. Eurendako be dana da barrixa. Hasteko, hor dabiz, aforuarena zelan konpondu biharrian. Obrak egin biharko dira lpu-ruan, hori seguru; baiña "gauzak ondo aztertu eta gero". Gaur egungo 5.000 eskasetik 6.000ra pasatzeko ahalegiña egingo dabedatorren urterako. Normati- biak 15.000 eskatzen badau be, aurretik hor izandako Almen- dralejoko Extremadurak eta



Garitano bat baiño gehixago izan ziran Diputaziñoko harreran.

Numantziak be ez zittuen hala- korik bete. Hala- ko ekimenezta- ko ez jakue txar- to etorriko tele- bisioño eskubi- diekin emongo dan jauzixa, "aurtengo bi milioi eta erdittik 15 milioi eurora igoko dalako partidia". Bazkidien kopurua be geldittuta daka Eibarrek, aforuari zelan erantzuten detsen esperuan. Horko zerren-



Zaletuen poztasuna. LEIRE ITURBE



dia, bittartian, luzatzen juango da, "baiña gaur egun ezin gara 3.600etik pasatu".

Bagoiaz, bagoiaz... baiña, ga-

raipenaren aparrak disfrutatuta be, ezin gara ahaztu kapital-za- balkuntzaz. Bi hillabete baiño gitxiago geratzen da epia amai- tzeko eta, han eta hamen ber- ba polittak entzunda be, erre- alidadiak diño hori be bete bihar dala. Maiatzaren 4aren goizian, ale hau inprentara bi- dian, 1.172.050 euroko kopurua erakusten zeban Eibar Foball Tal- diaren web orrixak, hau da, kopuru osoaren %68. "Tensi- ñuari eutsi bihar detsagu" diño presidentiak, Mundialak dato- zela-eta nahiko arduratuta.



Multikirolerako be prest doguz Eibar FT-ko jokalarixak, batzuk larri ibilli arren. FELIX MORQUECHO

ARRATE ETXEBERRIA ARREGI

"ESKERRIK ASKO zure alaitasuna eta bizinahia GURE ARTEAN konpartitzeagatik"

ARREGI UGARTEBURUTARRAK





Aitta Santuak be izan zeban mirarixaren barri.

CNN-n ordu erdi

Eta ingelesez! Holan alkarrizketatu eben Aranzabal. Ez pentsa danon eskuetan daguanik halakorik egittia! New York Times, The Guardian, Al Jazeera, Txinako egunkarixak... hainbat komunikabidetan jarraitu da Eibarrek egindako balentria. Eta akziñuak erosi dittuen artian, "30 naziñotik gorakuak da-

goz": Noruega, Txina, Malasia, Singapur, EEBB...

Hurrengo erronkaren billa hasi biharko da bazan behin munduko ekiporik onena. Oin dala asko Diputaziñuak emondako kamiseta eta praka batzurenkin egindako taldia honaiño heldu da, baiña ez hamen barrik geratzeko: gure herriko eta inguruetakuak kamisetaz al-

datu daben moduan. Realekuari eta Athletic-ekuari beste aukera bat gehitu jako... eta Messiren jarraitzaile txikixenak be hor dake aukeria. Gaiñera, koloriak aldatu barik. Txikittatik hasitta, konturatu bez! Hori bai, beste estilo batekin: gure txikitasunetik abixauta eta umiltasunez lan eginda. Horrek berrek zein ezagunak egitten ja-

kuzen, zeñiek ez dau halakorik esan azken egunetan.

Fran Garagarza sekretarixo teknikuak mahai gaiñian dakarnari bueltak emoten hasi biharko da, "eskintzak be aurreko urtietakuak baiño gehixago izanda". Zazpi jokalarik dake kontratua jarraitzeko. Ixa urtero lez! Baiña munduko ekipo onenaren gaiñian dihardugu!!!



Munduaren bestaldian (Brasilen) be eibartarrak ekipua egitten.

ZEZENBIDE AUTOESKOLA

ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30

Autorako Teorikoa

17 urterekin

INFORMAZAITEZ!

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR

+ OSASZUN GAZDA

Dentistak

ARAT Hertz Klinika
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA



Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

UniverSalud

TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. Esk. Tfn: 943 20 18 51

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfn. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA



- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfn. 943 20 34 46 Tfn. 943 74 33 74

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hertz klinika

Asko dira
gure hertz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hertz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfn. 943 20 72 17

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Tfn.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
Tfn.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

GASTESI
Hertz-Klinika
Ane Gastesi



Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuina 943 70 00 90

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

FISIOTERAPIA

ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia. OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA

S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

+ OSASUN GAZTA

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairatea
943 20 19 82

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikia

• Katarata ebakuntzak
(lente multifokalarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2.º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050**

**ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746**

PODOLOGOA
Erdiko klinika


Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoa
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
- - - - - (Ume eta helduendako) - - - - -

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA

Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66
a_garitaonandia@hotmail.com



Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023



**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

Deltecoko triatloilariak Munduko Duatloi Txapelketan

Aurreko zapatuan Pontevedran jokatu zen Munduko Duatloi Txapelketan Eibarko triatloi taldeak hainbat ordezkariz izan zituen eta, 24-29 urtekoen mailan, Andoni Mayo 17.a izan zen eta Ibon Romero 29.a. Roberto Gartzia, bestalde,

33.a izan zen 40-44 urtekoen mailan; eta Juanjo Romero, azkenik, 18.a 50-54 urtekoen mailan. Bestalde, hurrengo egunean (domekan) Barakaldon jokaturako triatloian, Alejandro Altunak garaipena eskuratu zuen beterenoen V2 mailan.



Mayo, Ibon eta Juanjo Romero eta Gartzia Pontevedran.

San Juan pilota txapelketako finalerdiak martitzenean

Jaietako tomoak, ohikoa denez, bi txapelketa izango ditu: lau eta erdiaren barruan jokatu dena, alde batetik, eta binakakakoa bestetik. Martitzenean, torneoaren lehen jardunaldian, finalerdiak izango dira jokoan Astelena frontoian, 19.15etan hasita: lehen partiduan Perez eta Lizarralde nor baino nor borrokatuko dute Konde eta Eriken aurka; eta, jarraian, kaiolaren barruan neurtuko dituzte indarrak Txurruka elgoibartarrak eta Deporreko Arribillagak. Hilaren 17an bigarren finalerdiak jokatu dira.



Bestalde, Arribillagak Udaberri Torneoaren final-zortzirenetako kanporaketa gainditu zuen aurreko asteburuan (22-19 irabaziz Errenetriako Jauregiri) eta gaur Lezon jokatu du Mujikaren kontra.



Mendiko dominak banatu ziren Deporreko Finalista Egunean

Aurreko domekan mendi-ibilaldi bi eta roll-eskian igoera egin zuten Arrateraino, gero Tiro Pitxoian denboraldiko dominak banatu eta jarraian bazkaldu aurretik. Mendi batzordekoek, bestalde, irteera egin zuten bezperan, zapatuan, Larraitzetik Lazkaomendiraino, 35 lagunekin. Bihar, bestalde, Euskal Herriko zeharkaldiaren beste etapa bat osatuko dute, Eugitik Auritzera doana.

eitek
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena

www.eitek.net

ekainak **15**

MUGAN Bizi, Bizi.

ARABA EUSKARAZ 2014

LAPUEBLA de LABARCA

Ekainak 15

AUTOBUS

12 eurotan

Buelta: 19.00etan

Irteera: 09.00etan

zerBITZUA

Lapuebla de Labarcan

J.A. MOGEL-EKO GURASOEN ELKARTEA

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

Iñaki Mateos Euskadiko errege fitnesssean

Urteek ematen duten jakintasunaz, Iñaki Mateosek beste garaipen bat eskuratu du eta orain bi urte eskuratutako hirugarren postua txiki laga du, oraingoan onena izan baitzen Gernikan jokaturako Euskadiko txapelketan, taila baxuko mailan (1'70etik behera). Lehiaketa irabazteaz gain, eibartarra onena izan zen ere pose artistikoan, "minutu eta erdian musikaz lagundurik hainbat postura" egin beharreko lehian. Aurretik ere hainbat garaipen lortu ditu Mateosek, hasi Sondikako eta Andoaingo txapelketatik eta kulturismoan lortutako Euskadiko biekin;



horrez gain, Espainiako txapelketan 3.a izan zen orain dela urte batzuk kulturismo naturalean. Azken garaipena bi parametrotan ikusten du irabazleak: "Alde batetik, definizioan; eta, bestetik, izterretan. Oso ondo landuta nituen bi arloak". Bere burua faboritotzat

ikusten zuen galdetuta, aurkari ez diela erreparatzen esan diegu: "Neure burua zaintzearekin nahikoa dut". Horregatik, gogor saiatu zen aurreko egunetan, "lau egunetan ur litro bat baino gutxiago edanez". Datorren urtean, dena dela, ziur du ez dela aurkeztuko:



"Epaile izango naiz agian", diño berak. Bittartian Jaso Kirol Zerbitzuetan monitore ardura-dun dihardu Mateosek, bere burua eta bestiena zaintzen.

Nahia Gonzalez Euskadiko azpitxapeladuna gimnasia erritmikoan



Aurreko zapatuan Gasteizen jokaturako Eskola Jokoetan Ipuruako gimnastak zilarrezko domina irabazi zuen alebin A mailan. Nahia Gonzalezek banakako bi ariketa egin zituen eta aroarekin esku libreetan baino hobeto jardun zuen oraindik. Hurrengo egunean, domekan, amateur kadete mailako Euskadiko txapelketan, Nerea Dezak 5. postuan amaitu zuen, soka-

rekin laugarrena eta aroarekin zortzigarrena izan eta gero.

Bihar amateur, jubencil eta senior mailetako azken txapelketa jokatu da Durangon: han izango dira Ane San Martin, Nahia Bilbao, Grazi Arregi eta Olaia Golzarri, banaka zein taldeka jarduteko. Ipurua Klubak, bestalde, bi erakustaldirekin itxiko du ikasturtea: hilaren 21ean Kiroldegian eta 22an Untzagan.

OIHALAK / JANTZIAK / ETXERAKO ERROPAK


Ugarteburu

%30 %50 %70

deskontuak

BETIKO GENERO ONA
AUKERA PAREGABEAN

Ekainaren 30ean
ITXIKO DUGU



EIBAR
Bidebarrieta, 5 Tlf. 943 20 18 40

Tantanez Tantanaren azken ediziñuak iñoiz baiño jende gehixago batu zeban zapatu eguardixan. Hasi baiño ordu erdi lehenagotik Urkizutik Untzagaraiño ibilbide guztia jendez beteta eguan, gantxillia esku artian izateko goguz. Egurdixak be parte hartzia erabagi eban eta, aurretik genekan bildurrari erantzunda, espero ez genduazene beste tantaka batzurekin izan zan ibilbidian, gantxillia behin baiño gehixagotan ezkutazeraño guardasol artian. Dana dala, euskeraz bizitzeko gogua nagusitu zan beste guztiaren gaiñetik eta, aurreko urtietan baiño denpora gehixago bihar izan bagenduan be, azkenian gantxilliak ibilbide osua egiñ eban. Saman koadrodun zapixa lotuta itxoin zetsan jendiak komitibiari eta Urkusuko iturririxan Gurasoak Berbetan egitasmoko parte-hartzaillak betetako gantxillia holan heldu zan Mikel Larreategi Klub Deportiboko presidentiaren eskuetaraño. Azken tragua egiñ ondoren, euskeriaren aldeko komunikaua irakorri eban eta talde argazkixa etartzeko denboria be izan genduan. Hamendik bi urtera barriro bueltan izango gara!



ARGAZKIAK: LEIRE ITURBE ETA SILBIA HERNANDEZ

TANTANEZ-TANTAN



GUARDASOLEN ERREIÑUAN



EMAKUMEAK INOR ZAINDU NAHI DUTEN EDO EZ, ETA NOLA EZ DUTE AUKERATUKO DUTE.

* Eguneko zentroyen asteburuetako zerbitzuen edo aldi baterako egonaldien zerbitzuaren hedadura handitzea.

** Zaintzaileentzako Sendian programaren barruan hainbat eduki sartzea, hala nola nor bere burua zaintzea, eta, zaintzaileen jabeakuntzaren ikuspegitik hartuta, zaintza banatzeko etxe barruko negoziazioa.

*** Lehenago jaso LPDa (Laguntza Pertsonalerako Diru Laguntza) eta haren estaldura handitzea, hura jasotzen baitute mendekotasuna duten pertsonak, eta haren bidez kontratatzen baitituzte zainketa profesionalak, IZDa baino (Ingurune Familiarrean Zaintzeagatik Diru Laguntza), hori jasotzen baitute mendekotasuna duten pertsonen arduratzen diren familiarrek, gehienbat emakumeak.

 **Gipuzkoa**
BERRIA

berdintasuna **
egiteko asko
www.berdintasuna.net



Arantza Alvarez Topalekuan

Gaur arratsaldean hasi eta hilaren 22ra arte Arantza Alvarez Laskurain artista eibartarraren margo eta eskulanak ikusteko aukera egongo da Topalekuan. Erakusketa 19.00etatik 21.00etara zabalduko dute astegunetan eta zapatu eta domeketan, berriro, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.



ENEKO ANDUEZA "Zezenzaleok ingurumena ere errespetatzen dugu"

Hirigintza zinegotzia zezen-zalea da aspalditik eta "Dolores Aguirre, palabra de ganadera" liburua kaleratu berri du. Aurretik ere zezen munduaren inguruko literatura saria irabazi zuen, Valladoliden eman zioten Felix Antonio Gonzalez Sari Nazionala. Horrez gain, Pedrucho Eibarresa zezenzaleen peñako presidente gazteena izan zen, RNE-ko "Clarín" irratsaioko kolaboratzailea eta lau denboralditan Radio Euskadiko zezen-kritikaria.

- Zerk bultzatu zaitu Dolores Agirre ganaduzalearen inguruko liburua kaleratzera?

Orain dela urtebete hil zen eta banuen harremana berarekin. Zaletasun bera izateaz gain, zezenaren inguruko kontzeptuan ikuspegi berbera partekatzen genuen eta ondo iruditu zitzaidan berak egindako ekarpenari eustea. Lagun batzuren arteko asmoa izan zen, idaztearena nire esku laga zutenak. Gauetan jardun dut, dokumentazioarekin urrian hasi eta martxoan amaitu nuen arte.

- Zerk egiten zuen berezi zure liburuaren protagonista?

Batez ere, bere ganadutegiko zezenak ez direla toreatzaileen gustora prestatutakoak, baizik-eta zaletuendako, tendiduan dagoenendako. Gure zaletasunaren tradizioan sakondu zuen berak eta horrela hautatu zituen zelakoak izango ziren bere ganadutegiko zezenak. Hortik dator Madrilén, Bilbon, Iruñean eta Frantzián jasotzen duten errespetua.

- Eibarren maiatzaren 29an eta inguruan (Bilboko Club Cocheriton bezperan) egindako liburuaren aurkezpenen ondoren, astelehenean Madrilén izan zinen. Zelan joan zen ekitaldia?

Jendez gainezka. Omenaldi moduan antolatuta genuen eta erantzuna ere tamainakoa izan zen. Aurkezpenekin amaitzeko, uztailaren 1eko asteburuan egingo dugu beste bat Iruñean, Sanferminak hasi aurretik. 15 egun dira liburua kalean dagoela.

- Zezenak berriro izango ditugu Sanjuanetan. Datozen toreatzaileak ez dira, baina, lehen mailakoak, ezta?

Izen handirik ez badute ere, zaletuentzat ezagunak dira eta, esaterako, aste honetan Madrilgo kartelean dago bat. Polita izango da zaletuentzat, ikusteko modukoa.

- Zein egoeratan dugu zezen-plaza gaur egun?

Pentsatutako proiektua garestiegia da gaur egun egiteko eta baztertuta geratu da. Egoera ekonomikoa hobetu arte ezin da askorik egin. Ea asmatzen dugun beste erabilera batzuk aurkitzen.

- Ulertzen dituzu zezen-festaren aurkako jarrerak?

Zelan ez! Baina errespetu bera eskatzen dut besteekiko, zaletuak garenontzako. Askok ez dakite zer dagoen atzean ezta gu zenbateraino garen ekologistak eta ingurumena zelan errespetatzen dugun. Eta, jakina, zezen-festarik gabe, agur zezenei!

Palacios saritua atzerrian

Juan Antonio Palacios Deporrek argazkilariaren lanak Serbian eta Turkian saritu berri dituzte: Serbian DPW (Digital Photo Word)



delakoan brontzeko domina jaso du "Semana Santa I" argazkiarekin eta "Sakoneta I" izenburukoari ohorezko aipamena egin diote; eta Turkian, UPI Argazkilarien Nazioarteko Batasunak "Bercianos" bildumako 5 argazkien portfolioari ohorezko aipamena egin dio.

Asteburu betea Berbalaguntzat

Arabako Izarra herrian ospatu da aurtengo Mintza Eguna eta bertan izan ziren Eibarko ordezkariak ere. Dozena bat berbalagun joan ziren Eibartik eta egun polita pasa zuten bertan: ingurua ezagutu, elkarrekin bazkaldu, jolasak, dantzak... Gurasoak Berbetan egitasmoko kideek ere ez zuten aspertzeko astirik izan. Zapatu goizean Gantxillaren egunean parte hartu zuten, eurek izan zuten gainera gantxilla Urkizuko iturrian urez betetzeko ardura, eta elkarrekin bazkaldu zuten giro ederrean. Baina ez zuten eguna hor amaitu. Eibar taldearen ospakizuna zela-eta, elkarrekin afaldu eta gure herriko taldea animatzera ere irten ziren kalera, egunari amaiera biribila emanez.



Flamenkoa eta gehiago Belekonean

Bista Eder kaleko Beleko tabernak hainbat jarduera antolatu ditu datozen egunotarako: gaur 23.00etatik aurrera "Flamenkoa eta bere mugak" saioa eskainiko du David Escudero (gitarra, ahotsa), David Colomo (gitarra) eta Oscar de la O (perkusioa) musikariek. Beleko tabernan. Eta bihar, 19.30etatik aurrera Beira taldeak kontzertua emango du. Hilaren 13an Morau eta Beñardoren txanda izango da; hilaren 14an Anemona goizak eta Unai Gaztelumendi eta Jokin Uranga bertso-larien saioa hartuko ditu tabernak; eta 15ean txotxongilo-ikuskizuna eskainiko dute.



Udako egitaraua El Corte Inglesean



Ekainarekin batera udako sasoiari ekin dio El Corte Inglesak, bertako terrazan eskainiko diren hainbat emanaldi eta jarduera antolatuta. Lehen asteburu honetan, Voces y Cuerdas taldeak zapatuan 19.30etatik aurrera emango duen kontzertua izango da. Ekainaren 21ean Stai Zitto taldeak joko du eta uztailaren 11n, beriz, Crazy Wheels Band taldeak country-rock emanaldia eskainiko du, euskeraz. Kontzertuez gain, bestelako jarduerak prestatu dituzte: umeen moda desfilea (ekainak 14), Bocabeats monologo-saioa (ekainak 27), Pantxika eta Txinparta clownak (uztailak 19), II. Play Satation Gran Turismo txapelketa (ekainak 20, 27 eta 28), IV. Maskota lehiaketa (uztailak 5) eta haur-tailerrak (ekainak 28, uztailak 5 eta abuztuak 2 eta 9).

laburrak

"FENIX 11*23" FILMA

Astelehenean "Fénix 11*23" filma emango dute Portalean. Joel Joan eta Segi Larak zuzendua, jatorrizko hizkuntza katalana da, baina euskaraz azpiztitulua emango dute, hiru emanalditan (09.45etan, 14.30etan eta 19.00etan). Hiruak irekiak eta doan izango dira. Pelikulak benetan gertatutako istorioa kontatzen du: Éric Bertran 14 urteko gaztea terrorista informatikoa leporatu zioten, supermerkatu kate bati bere produktuak katalanez ere etiketatzeko eskatzeko mezua bidali zuelako eta horren ingurukoak azaltzen ditu.

GAZTELEKUA

Asteburuan pultsera-tailerra, Disparate Eguna eta Play/Wii egingo dira Indianokua gaztelekuan. Bestalde, DBH-koentzat Urdaibaira joateko antolatu duten akanpadarako izen-ematea zabalik dago (uztailaren 14tik 18ra, 75 euro). Eta, horrez gain, ekainaren hasieraz geroztik 6. mailakoak sartzeko aukera daukate, gaztelekua ezagutzen joateko.

MARIA URKIDI URRIOLABEITIA



2014-V-22

Mundua ez da beti jai inoiz tristea ere bai baina badira mila motibo kantatzeko alai.

JOSE ANTONIO 'TOÑIN' HERNANDEZ MARTINEZ



2014-V-29

Bestela datozen penai ez diet surik bota nahi ni hiltzen naizen gauean, behintzat, egizue lo lasai.

**FAMILIAREN IZENEAN
gure nahigabeen
lagundu eta gurekin
egon zareten guztioi
ESKERRIK ASKO**





Liburutegiaren aplikazioa eskuragarri

EibarLiburutegi aplikazioa prestatu dute liburutegiaren zerbitzu eta informazioa erabiltzaileei modu erosoan helarazteko. Aplikazioak, besteak beste, kontakturako bideak (helbidea, mapa, telefonoa, e-maila, webgunera sarbidea, klik bakarrarekin dei bat edo korreo elektronikoa bat bidaltzeko aukera emanez), ordutegia, katalogorako sarbidea, nobedadeen erakusleioa, blogerako sarbidea eta jardueren buruzko informazioa biltzen ditu. Kaleratu dituzten orri-markatzailaetako QR kodeak erabilia, Android edo iOS gailuetan oso erraz deskargatu daitezke aplikazioa (euskaraz eta gazteleraz dago) eta, bestela, www.appcatch.com helbidean ere eskuragarri dago.

Ekaineko argazki erakusketak

Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek hiru erakusketa antolatu dituzte ekaineko beste horrenbeste tabernatan: Mikel Urionaguenaren argazkiak Portalea jantetxean ikus daitezke, Iñaki Kaperotxipirenak Klub Deportiboan eta El Ambigu tabernan Jose Luis Martinenezek Baltikoan egindakoak daude ikusgai.

Garagardo Jaia: Sanjuanetarako berotzen joateko

Eibar Rugby Taldeak datorren asteko eguenean zabalduko du ekainaren 20ra arte Untzagako karpan egingo den Garagardo Jaia. Inaugurazioa hilaren 12an, 19.00etan izango da eta aurtengo ekitaldian Kalamua judo kluba omenduko dute. 20.30etatik aurrera Xero Xiette-rekin erromeria antolatu dute. Hortik aurrera, arratsaldero 19.00etan zabalduko dute eta, garagardoa edan eta bapo afaltzeko aukera eskaintzeaz gain, egunero zerbait berezia egingo dute: hilaren 13an Dantzari Egunarekin bat egingo du jaiak; 14an Markel Alberdi igerilaria omenduko dute (gauean, San Juan jaien egitarauaren barruan Su Ta Gar taldeak kontzertua emango du Untzagan); 15ean ZZTorpes taldeak kontzertua emango du; 18an Eibar foball taldeko Garitano eta Errasti omenduko dituzte eta, ondoren, The Vartools taldeak kontzertua emango du; 19an Mongo taldeak joko du; eta 20an The Crazy Wheels Band taldearen kontzertuarekin agurtuko dute aurtengo Garagardo Jaia.



Euskaltegiko jubilatuen txangoa

Udal Euskaltegian urte osoan euskara ikasten jardun eta gero, Eibarko jubilatuen talde honek ikasturtea agurtzeko Mallabia aldera txangoa egin zuen. Diotenez, "paraje interesgarriak ikusteko ez dago urrutira joan beharrik eta, horregatik, Mallabira bisitaldia egitea pentsatu dugu. Eibartik sei kilometro eskasera dago Mallabia, baina eibartar askoentzat ezezaguna da: Amezaga jauregia, Mallabiabarrena abizenaren jatorria, armairidun baserri ugari, pasealeku ederrak, Hambre eta Urtia erreken sorburuak eta inguruak... ikusteaz gain, sasoi bateko auzo-eskolak soziedade egin direnez, horietako batean, Berano Nagusikoan hamarretako ederra egiteko aukera ere izan genuen".



Min bizia. Miña bihotzean ta bizitakoa oroimenean. Harrien artetik distira egingo duen harri bitxia.

Eskerrik asko izandakoa izanagatik, TIA ARRATE Familiak eta bereziki zure ilobak betiko gogoan izango zaitugu



laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Bidaltzekotan: publizitatea@etakitto.com



Zorionak, LIBE, bixar bederatzi urte egingo dozuelako! Laztan haundi bat Lorea, Jule, Olatz eta danon partez.



Zorionak, JARE Unzeta-barrenetxea Hernandez, gure bizitzako poliitenak atzo urtetxua egiñ eban-eta. Asko maitte zaituen aitta eta ama.



Zorionak, IZARO, gure etxeko printzesak atzo hiru urte egin zittuan-eta! Birramama, aitxitxa, amama, guraso eta tiuen partez.



Zorionak, HAIZEA Gracia Lekunberri, domekan lau urte egin zenduazelako. Famelixaren partez. Zaragozatic, aupa Eibar.



Zorionak, MARCEL, domekan zortzi urte beteko dozuz-eta. Ondo pasa!! Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, IZARO, gaur zazpi urte betetzen dozuz-eta! Laztan potolo-potolua famelixa danaren partetik. Ondo-ondo pasa olinpiadetan.



Zorionak, XABAT, gure etxeko txikixak bost urte haundi egin dittualako. Muxu pillua etxekuen partez.



Zorionak, IZARO, atzo sei urte bete zenduazelako. Zure aitxitxa-amamaren eta izeba-osaben partez.



Zorionak, OIER Miguel Caravantes, bixar bi urte egingo dozuelako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ALAITZ, bixar hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, UNAX, zapatuan bi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, UXUE, domekan bi urte egingo dozuelako. Famelixaren eta, batez be, Maialenen partez.



"Zenbat urte egitten dindu IBAIK? Baaaaaaat!". Zorionak, potxola, famelixa guztiaren eta, batez be, IRATIren partez.



Zorionak, JOKIN (domekan 11 urte egingo dozuz) eta MIREN (hillaren 11n, hamasei). Muxu bat, bikote, etxeko guztiaren partez.



Zorionak, AIERT eta ESTHER, asteburuan ezkondu egingo zarieta. Patxo haundi bana eta zorion guztia opa detsuegu bizitzan. Errebalekuak.



Zorionak, NAROA, FERNAN eta IRAIA, zuen urtebetzietan. Famelixaren partez.



Zorionak, JONE, potxola, atzo sei urte egin zenduazeta. Amatxo, aita eta Julenen partez.




Zorionak, MAITANE, atzo urtetxua egin zenduan-eta. Etxekuen partez.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
7an: 17.00, 19.45, 22.30
8an: 17.00, 20.00
9an: 20.30

"El gran cuaderno"
 Zuzendaria: Janos Szasz



(2 ARETOAN)
7an: 17.00, 19.45, 22.30
8an: 17.00, 20.00
9an: 20.30

"El pasado"
 Zuzendaria: Asghar Farhadi



(ANTZOKIAN)
7an: 17.00, 19.45, 22.30
8an: 17.00, 20.00
9an: 20.30

"Malefica"
 Zuzendaria: Robert Stromberg



BARIXAKUA 6

GAZTELEKUA

16.30. Pultserak egiteko tailerra eta Disparate Eguna. Indianokuan.

BATZARRA

19.00. Sanjuanak antolatzeke, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

URKIKO JAIK

19.00. Hasiera. Kalejira, Ustekabe fanfarrearekin.
19.30. Jokoak.
19.30. Nagusiei omenaldia (Cepa parean).
20.00. Txikiteoa, Ustekabek lagunduta.
23.00. Kontzertua: The Vartools, Lentejuelas eta AZ/DZ. Arrateko Andra Mari ikastetxean.

DANTZA

20.00. Biraka Dantzaren "Los 40 principales" (3 euro). Coliseoan.

KONTZERTUA

23.00. "Flamenkoa eta bere mugak". David Escudero (gitarra, ahotsa), David Colomo (gitarra), Oscar de la O (perkusioa). Beleko tabernan.

ZAPATUA 7

EUSKARAZ BIZI

08.00. Iturburura autobus zerbitzuaren hasiera (Ego-Gainetik eta Urkizutik). Egun osoan kirol probak, musika... Iturburun.

ISEKIN-EN AURKEZPENA

10.00. "Soñadores de esperanza" ipuinen salmenta-postuak zabaltzea.
11.00. Txapelketako tortillak jasotzea.
12.00. Txosna zabaltzea. Ipuin kontalari saioa, Borja Rodriguezen (Happy FM) eskutik.
13.00. Sari-banaketa.
13.30. Ipuruako Dantza Txiki taldearen erakustaldia.
17.00. Ipuinen salmenta-postuak zabaltzea.

18.00. Txosna zabaltzea.
19.00. Wu Shu erakustaldia, Montxo Kinaren eskutik.
21.00. Amaiera. Untzagan.

EIBARREN KALEETAN KANTUZ

11.00. Parte-hartzaileei harrera, hamarretakoa eta kantu-paperak banatzea. Untzagako jubilatuek.
12.00/14.30. Kalerik kale kantuan ibiliko dira.
14.30. Bazkaria Untzaga Plaza hotelean.
18.00. Agurra, Untzagan.

URKIKO JAIK

11.00. III. Txiki Krosa (Urki-Kurutzekuan).
11.30. Diana, Eibarko Galiziako Etxeko gaita-jotzaileekin.
12.00/14.00. Umeendako jolasgunea eta karate, aeroboxing eta zumba erakustaldiak.
12.30. Salda eta txorizoa (Cepa eta Vila-ren parean).
16.30/18.30. Umeendako jolasgunea.
17.00. XIII. Toka eta igel-toka txapelketa (Rioja taberna parean).
19.00. Cava eta otarrainska jaia, Tarumba Percusion taldeak alaituta.
21.45. Herri-afaria.
23.30. Berbena, Ciclon orkestarekin. Arrateko Andra Mari ikastetxean.

GAZTELEKUA

17.00. Pultserak egiteko tailerra eta Disparate Eguna. Indianokuan.

KONTZERTUA

19.30. Voces y Cuerdas taldea. El Corte Ingles-ean.

KONTZERTUA

19.30. Beira taldea. Beleko tabernan.

jaiotakoak

- Manuel Urain Sanz. 2014-V-24.
- Itziar Lapeyra Mendoza. 2014-V-25.
- Dairon Valdes Valdes. 2014-V-26.
- Mikel Mondragon Urizar. 2014-V-27.
- Luken Amutxastegi Lizundia. 2014-V-30.

DOMEKA 8

GURE ESKU DAGO

09.00/10.00. Giza-katea osatzeko ekitaldira joateko autobusak (bete ahala ir-tengo dira; itzulera, 14.00-etan eta 19.00etan). Untzagan (jubilatuen aldea).

TXORI KANTARIAK

09.00/14.30. Eibarko Hiria Txori Kantarien XV. Txapelketa, JJJ Memoriala. Arraten.

URKIKO JAIK

09.30. Mendi-martxa, Atzegikoekin.
11.00. Diana, dultzainero eta trikitilariekin.
11.00. VI. Mendi Lasterketa.
12.30. XVI. Paella Lehiaketa.
13.00. Meza (San Jose elizan).
14.00. Paella lehiaketaren epai-mahaiaren erabakia.
16.45. "Hoy fiesta" antzezlan, Trapero taldearen eskutik.
18.00. Txokolate-jana eta sari-banaketa.
18.30. Arno DJ.
20.00. Jaien amaiera. Arrateko Andra Mari ikastetxean.

KONTZERTUA

12.30. Cielito Musika Banda. Untzagan.

GAZTELEKUA

17.00. Play / Wii. Indianokuan.

hildakoak

- Candido Cid Alvarez. 89 urte. 2014-V-20.
- Arrate Etxeberria Arregi. 57 urte. 2014-V-28.
- Jorge Urkidi Legarra. 61 urte. 2014-V-29.
- Jose Antonio Hernandez Martinez. 60 urte. 2014-V-29.
- Arrate Markaide Rodriguez. 50 urte. 2014-V-31.
- Ana M^a Baglietto Berraondo. 84 urte. 2014-V-31.
- Jose Antonio Gonzalez Atxa. 83 urte. 2014-VI-3.

ASTELEHENA 9

ZINE-EMANALDIA

09.45, 14.30 eta 19.00. "Fenix 11*23" filmaren emanaldia (jatorrizko hizkuntzan, katalanez, euskerazko azpiztituluekin). Sarrera doan. Portalean.

MARTITZENA 10

BATZARRA

19.00. "2014-2020 Plangintzaren aurkezpena", Eibarko EH Bilduren batzar irekia. Portalean.

EGUAZTENA 11

MUSIKA

18.00. J.B. Gisasola Musika Eskolako rock taldeen kontzertua. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

DANTZA

19.00. Ipurua Dantza Garaikide umeen taldea (3 euro). Coliseoan.

MAHAI-INGURUA

19.30. "El Conquistador del fin del mundo". Parte-hartzaileak: Jose Luis Korta, Julian Iantzi, Joxean Goñi eta Egoitz Txurruka "Txurru". Portalean.

EGUENA 12

ODOL-ATERATZEA

18.30. Odola ateratzeko saioa, odol-emaileentzat. Anbulategian.

BATZARRA


19.00. Kaleratzeak Stop Debabarrena-ren batzar irekia. Portalean.

GARAGARDO JAIK

19.00. Garagardo Jaiaren inaugurazioa (ekainaren 20ra arte zabalik). Untzagan.

DANTZA

20.00. Ipurua Dantza Garaikide taldearen emanaldia (3 euro). Coliseoan.



erakusketak

✓ Ekainaren 15era arte

MARGO, MARRAZKI ETA ZERAMIKA udal eskolako ikasturte amaierako erakusketa. *Portalean.*

✓ Ekainaren 22ra arte

ARANTZA ALVAREZ LASKURAINEN margo eta eskulanak. *Topalekuan.*

✓ Ekainaren 30era arte

IÑAKI KAPEROTXIPIREN argazki erakusketa. *Depor tabernan.*

JOSE LUIS MARTINEZEN "Paises Balticos" argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan.*

MIKEL URIONAGUENAREN argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

farmaziak

✓ barixakua 6

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✓ zapatua 7

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✓ domeka 8

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

✓ astelehena 9

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✓ martitzena 10

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✓ eguaztena 11

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✓ eguena 12

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✓ barixakua 13

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI

Azkue (T. Etxebarria, 4)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

lehiaketak

✓ Li (buru-hausgarriak)

Irakurzaletasuna sustatzeko lehiaketa, LH-ko 2. mailatik gorakoentzat. Liburutegian.

✓ On Ekin enpresa ideia-proiektu lehiaketa

Lanak aurkeztea eta informazioa: ekainaren 27ra arte, ekingune.com webgunean, ekingune@ekingune.com helbidera idatzita edo 943208420 telefono zenbakira deituta.

✓ IV. Maskota Lehiaketa

Uztailaren 5ean, 11.30etan. El Corte Inglesean, 3. solairuan.

✓ Made In Eibar dokumental lehiaketa

Lanak aurkeztea: irailaren 15etik urriaren 31ra arte, Pegoran. **Informazioa:** 943708437, www.eibar.net eta San Martin liburutegian.

4	2			5	6		
3			9			7	
			1				5
		7			2		
2		3	9	8			1
		3		2			
6			8				
	8			1			4
		1	2			8	6

SUDOKUA

6	1	9	5	7	4	2	3	8
8	5	4	9	3	2	7	6	1
3	2	7	8	1	6	4	5	9
9	7	5	2	8	3	1	4	6
4	6	3	1	9	7	5	8	2
2	8	1	4	6	5	9	7	3
1	3	2	7	5	8	6	9	4
7	4	6	3	2	9	8	1	5
5	9	8	6	4	1	3	2	7

AURREKOEN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Babes Ofizialeko etxea salgai Amanian. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. 70 m². Garajea eta trasteroa egiteko aukera. Tel. 943-530556 eta 686-679518.

1.2. Errentan

– Bikote gazteak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 664-212382.
– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-192408.
– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-569245.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar/Elgoibar inguruan. Tel. 637-363778.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 632-569245.
– Igozailua duen pisua hartuko nuke alokairuan Eibarko erdialdean. Luzararako. Tel. 615-709177.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Garajea hartuko nuke alokairuan Txaltxa-zelai inguruan. Tel. 645-722611.
– Garajea alokagai Ego-Gaineko etxe berrietan (Alfan). Tel. 619-812448.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakume euskalduna eskaintzen da sukaldaritzan jarduteko. Baita ostalaritza arloko beste lanetan ere: barran, ... Tel. 943-531201.
– Laguntzaile diplomata eskaintzen da nagusiek lan egiteko. Euskara, frantsesa eta gaztelera dakiena. Baionako ospitalean lan egindakoa. Tel. 943-531201.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko gauz eta orduka. Erreferentziakin. Tel. 631-506763.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka eta interna. Tel. 602-805363.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernak edo pegorak garbitzeko. Erreferentziak. Tel. 631-282203.
– Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko, ... Tel. 672-076852.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 693-985628.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Esperientzia handia. Tel. 622-037598.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-832767. Eva.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa eta orduka. Tel. 673-199638.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta orduka. Tel. 679-946934.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta baserrian jarduteko. Tel. 686-077316.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-534135.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-338816.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 3 urteko esperientzia. Orduka eta baita gauz ere. Tel. 660-514858.
– Gizonezko euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 638-241910.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 608-147559.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 610-658914.
– Pedagogia amaitzen diharduen ikaslea eskaintzen da uztailan umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 677-591982.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Gizonezkoa eskaintzen da peoi moduan, seguritatean jarduteko, igeltsoraguntzaile moduan. Tel. 632-192408.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta haurrak eskolara eramateko. Tel. 664-065826.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 686-265293.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 674-638686.
– Mutil euskalduna eskaintzen da kamarero jarduteko, baserrian lan egiteko, peoi moduan... Tel. 688-819010.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-120839.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 698-604531.
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko arrazaldez eta asteburuetan. Tel. 645-366850.

4.2. Langile bila

– Banatzailea behar dugu, sukaldaritza oinarriko ezagutzarekin. Tel. 686-913746.
– Kamarera/o behar da esperentziarekin Eibarko taberna batean. Tel. 679-831689.
– Sukaldari-laguntzailea behar da asteburuetarako. Tel. 620-810120.
– Emakume euskalduna behar da umea eskolara eramane eta etxea garbitzeko. Tel. 699-024156.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 943-572057.
– Kuxin (kojin) kanporatzailea salgai. Jarrita dagoenari jaikitzen laguntzeko. Tel. 943-207731 eta 605-713975.
– Baby Monitor Philips Avent jaioberriei entzuteko salgai. Tel. 626-144098.
– Urmeentzako motxila salgai. Denter markakoa. Tel. 626-144098.
– Gurpil-aulkia salgai. Ia berria eta motorarrekina. Motorra kobratuko da eta aulkia oparitu. Nagusiendako taka-taka ere salgai, otartxo eta guzti. Tel. 943-207731 eta 605-713975.

6.2. Eman

– 4 hilabeteko txakur mestizoa oparitzen da, ezin delako atenditu. Tel. 696-509360.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Disko gogorra galdu dut. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. Tel. 695-751648.

6.4. Bestelakoak

– Baserriar jantzia behar da, 7 urteko batentzat. Tel. 664-065826.

Belaustegi Baserria

JATETXEA

WWW.BELAUSTEGI.COM

943 74 31 02

15. urteurrena
Eskerrik asko eibartarroi



Aupa Eibar! Zorionak!
Josu Mugerza eta
Belaustegiko talde osoa

Go! Brasil serie berezia

Zure selekzioak markatzen badu, zu irabazle.

Hyundai bat erosten baduzu, zuk aukeratutako selekzioak markatzen duen gol bakoitzeko, zure finantziazioaren kuota bat bueltatuko dizugulako. **GOL 1 sartzen duela, kuota 1 gutxiago.** Zure selekzioa bikain dabilela eta Mundialean 15 gol sartzen dituela, 15 kuota deskontatuko dizkizugu. Jakin badakizu. Mundial honetako golak askoz gehiago gozatzen dira.

GOL 1 = KUOTA 1 GUTXIAGO
15 GOL = 15 KUOTA GUTXIAGO

150€-rainoko itzulketa kuota bakoitzagatik.

Etorri Hyundai bat probatzera ekainaren 16a baino lehen eta 2rendako Hyundai Esperientzia baten zozketan sartuko zara, hotel-gaua eta Madrilgo Club del Fan Park zonara joateko sarrerekin. Jakin zelan Hyundai.es/tuganas helbidean.

AUPA EIBAR! ELGOIBARKO OARSO CAR-EAN EROSIKOTAKO HYUNDAI BAKOITZEKO, OARSO CAR-EK EIBAR FT-REN 5 AKZIO EROSTEKO KONPROMISOA HARTZEN DU.

Promozio baliagarria 2014ko ekainaren 30era arte Elgoibarko Oarso Car-en erositako autoentzat.

NEW THINKING.
HYUNDAI NEW POSSIBILITIES.

OARSO CAR ELGOIBAR

Olaso Poligonoa, 17. 943 74 14 80

OIARTZUN	BEASAIN	IRUN
Lintzirin polig., 1 943 49 48 30	Errepide Nazionala., 1 943 80 40 54	Juan. Labandibar., 43 943 63 97 69



Gama i30 eta ix35 Go! Brasil:
CO2 igorpenak (gr/km): 109-182.
Kontsumo mistoa (l/100km): 4,1-6,9.

Eskaintza baliagarria 2014ko maiatzaren 20tik uztailaren 13ra arte gama berriko Hyundai bat Hyundai Sare Ofizialeko kontzesionario batean (www.hyundai.es helbidean eskuragarri) erosi eta erosketa hori Santander Consumer EFC, S.A.-rekin finantziatuko dituzten Penintsulan eta Balearetan bizi diren partikularrentzat. Promozio mugatua gehienez 15 kuotetara. i30 1.4 Mpi 100 CV KLASS-erako itzultze-eredua, Penintsula eta Balearetan gomendatutako 11.950€-ko PVP-arekin, hilaren amaierara arte baliagarria, BEZ, garrarioa, matrikulazio-zerga, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta PIVE 5 Plana (Gobernuaren PIVE Planaren baldintzen bete beharri lotuta) barne. Kuota bakoitzeko gehienez jota 150€ bueltatuko dira aipatutako modeloengatik, eta muga 15 kuotetan dago. Ez dira golak modura kontabilizatuko jokoaren arazuko denboratik kanpo lortutakoak (penalti txandak), ezta anulatutako golak ere. Gutxieneko zenbatekoa aipatutako modelo finantziatzeke: 11.000€ 48 hilabeteko gutxieneko epean. Finantza-entitatearen azterketa eta onarpenari lotutako finantziakzioa. Ikusgai dauden modeloak: i30 Go Brasil Plus eta ix35 Go Brasil Plus. Kontsultatu i10, i20, i30, i40, ix35, Veloster, Elantra, Santa Fe eta Grand Santa Fe modeloetako itzultzeko gehienezko zenbatekoak eta finantziatzeko gutxienekoak promozio honetako legezko oinarrietan, www.hyundai.es/tuganas helbidean argitaratzen direnak.



ZURE BIGARREN

VARILUX[®]

LEIAR PROGRESIBOAK

OPARI*

— BABES NEURRI ONENEKIN —

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA
ERRETERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan